ADAPTAKTION

Euskadi 2050

Klima-aldaketara egokitzeko konponbideen foroa

Urban Klima 2050 ixtea eta Euskadin ekintza klimatikoaren ziklo berria aurkeztea

Bilbao | 2026ko azaroaren 24tik 25era

BIZKAIA ARETOA-EHU



URBAN KLIMA 2050

Europar Batasunaren LIFE Programaren finantzaketa jaso du URBAN KLIMA 2050 -LIFE 18 IPC 000001 proiektuak.
El proyecto URBAN KLIMA 2050 -LIFE 18 IPC 000001 ha recibido financiación del Programa LIFE de la Unión Europea.
The URBAN KLIMA 2050 -LIFE 18 IPC 000001 project has received funding from the European Union's LIFE Programme.

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ADAPT AKTION Euskadi 2050

URBAN KLIMA 2050

2026KO AZAROAREN 24A, ASTEARTEA

Ekintza klimatikorako etapa berri bat Euskadin

Zazpi urtez, LIFE IP Urban Klima 2050ek konponbide berritzaileak bultzatu ditu lurraldearen erresilientzia hobetzeko klima-aldaketaren aurrean.

ADAPT AKTION Euskadi 2050 ekimenak erakundeak, teknikariak, profesionalak eta entitateak bilduko ditu, emaitzak partekatzeko, esperientziak trukatzeko eta Euskadin klima-aldaketara egokitzeko hurrengo hamarkadan izango diren erronkak aztertzeko.

EUSKADI ERRESILIENTEAGOA IZATEKO KONPONBIDEAK

- Naturan oinarritutako konponbideak
- Hiri-erresilientzia
- Erriberak lehengoratzea
- Kostaldea egokitzea

MAHAI INSPIRATZAILEAK

- Kosta: **Itsasoarekin elkarbizitza**
- Arroa: **Urari bere lekua itzuli**
- Hirigunea / hiri-ingurua: **Egokitzeko, naturara itzultzea**



2026KO AZAROAREN 25A, ASTEAZKENA

Ezagutu tokian bertan egindako egokitzapena

Bisita teknikoak Urban Klima 2050eko proiektu pilotuetara



ARABA

- **Basaldea (Gasteiz)**. Basaldeak erakusten du nola agrobiodibertsitateak indartu dezakeen nekazaritza, klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia handitu eta landa-paisaian era harmonikoan integratu.
- **Jundiz Parkea (Gasteiz)**. Jundizek erakusten du degradatutako eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskura daitezkeela karbonoa atzitzen duen eta zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituen korridore berde berri bat eratzeko.

BIZKAIA

- **Bakio**. Barnealdeko padura eta uholde-basoa sortzea, ingurune horretan ingurumen-kalitatea hobetzeko, biodibertsitatea errazteko eta uholdeez babesteko.
- **Tonpoi (Bermeo)**. Ingurune horretako ingurumen-lehengoratzea eta lehengoratze soziala, klima-aldaketara egokitutako erabilera publikoko hiri-inguruko azpiegitura berdea sortzearekin.

GIPUZKOA

- **Zarautz**. Kostaldeko uholdeen aurkako babesa indartzeko jarduketak: malekoia hobetzea eta hondartzaren inguruko zenbait sarbide birmoldatzea.
- **Errekatxulo (Donostia)**. Ibilgu naturala eta urbazterreko landaredia lehengoratzea, ibai-ekosistemaren kalitate ekologikoa hobetzeko eta uholdeen prebentzioan laguntzeko.

Zergatik joan

- Ezagutu Euskadiko zazpi urteko ekintza klimatikoaren emaitzak
- Entzun klima-aldaketara egokitzeko esperientzia inspiratzaileak eta erreferentziazkoak
- Partekatu ezagutza lurraldearen erresilientziarekin konprometitutako profesionalekin, administrazioekin eta entitateekin
- Aurkitu jada ezarrita dauden konponbideak eta haien emaitzak
- Hartu parte ekintza klimatikoaren hurrengo hamarkadari buruzko elkarrizketan



ADAPTAKTION

Euskadi 2050

Klima-aldaketara egokitzeko konponbideen foroa

7 urteko esperientzia partekatua

Eraikitzeke dagoen egokitzapen-hamarkada berri bat



Eman izena

Informazio gehiago eta programa osoa